

Herri kirol jarduerak eskola kirolean: diagnostikoa eta proposamenak



Miren **Egibar Artola***
Beatriz **Garai Ibáñez de Elejalde****

Komunikazio honek abian dugun ikerketa baten lehen ondorioak azaltzea du xedea. Gure ikerketaren lehen helburua Herri Kirolak jarduerak eskola kirolaren esparruan duten presentzia ezagutzeko da. Hau da, zein modalitateak garatzen diren, zein egoera ezberdinak egon daitezken lurraldeka. Horretarako azken urteetan hainbat erakundeek aurrera eraman dituzten programen eta ekintzen azterketa egin dugu.

Giltza-Hitzak: Herri Kirolak. Eskola Kirola. Herri Kiroleko Plan Estrategikoa. Herriko jokoak. Kirol Tradizionala.

El objetivo de esta comunicación es exponer las primeras conclusiones de la investigación que tenemos entre manos. El objetivo principal de nuestra investigación es conocer la presencia de los Deportes Rurales en el ámbito de los deportes escolares. Es decir, qué modalidades se desarrollan y las distintas situaciones que se dan por territorios. Para ello hemos estudiado los programas y actividades que han llevado a cabo distintas instituciones durante los últimos años.

Palabras clave: Deportes Rurales. Deporte Escolar. Plan Estratégico de Deportes Populares. Juegos populares. Deporte tradicional.

L'objectif de cette communication est de présenter les premières conclusions de la recherche menée, dont le but premier est d'analyser la présence des sports ruraux dans le domaine des sports scolaires. Autrement dit, les modalités existantes et les différences entre territoires. Pour ce faire, nous avons analysé les programmes et les activités de différentes institutions au cours des dernières années.

Mots Clé : Sports ruraux. Sport scolaire. Plan stratégique de Sports Populaires. Jeux populaires. Sport traditionnel.

* UPV / EHU. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fak. Lasarterako errepidea, z/g. 01007 Vitoria / Gasteiz. miren.egibar@ehu.es.

** beatriz.garai@ehu.es.

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza Herri Kiroletako Plan Estrategikoa abiapuntutzat harturik bi maila aurreikusten dituen plana garatu nahian dabil. Lehendabiziko mailan eskola kirola eta partaidetzako kirola jorratu nahi dituzte. Honen inguruan kokatu behar dugu EHUko diru laguntza duen gure ikerketa hau. Esan behar dugu ere, azken urte hauetan Herri kiroletan emakumeen partaidetza aztertu dugula eta oraingoa berriz herri kirol jardueren presentzia eskola kirolean aztertzen ari garela.

Horrela jarraian aipatzen ditugun hainbat helburu planteatu ditugu gure ikerketan. Lehenik herri kirolak eskola kirolaren esparruan duen presentzia ezagutzea: zein herri kiroletako modalitate garatzen diren, zein egoera ezberdin egon daitezken lurraldeka, zein ezberdintasun egon daitezken hezkuntza zentro ereduaren arabera eta eskola kirolean herri kirolaz arduratzen diren pertsonen perfil profesionala. Bigarren helburu bezala herri kiroletan parte hartzen duten gazteen motibazioak, parte hartzean dituzten zailtasunak eta beraiek egiten dituzten iradokizunak ezagutzea da. Eta azkenik gurasoek bere seme-alabek egiten duten praktikarekiko jarrera eta gaztetxoek parte-hartzea erraztu eta babesteko bidera daitezken ekimenen gaineko iritzia jakitea da.

Azken bi ikasturtetan, hau da 2006tik 2008ra eskola kirola programan parte hartu duten neska-mutilak hartu ditugu kontutan, hego Euskal Herriko lau lurraldetan eta hauei eginiko inkesta eta elkarrizketen bitartez aipaturiko ikerketaren helburuak bideratzen ari gara.

Beraz komunikazio honen bitartez, nahiz ikerketa guztiz bukaturik ez egon, martxan dugun ikerketan eskola kirolean herri kirolen egoera nolakoa den azaltzea izango da. Hau da, ikerketaren lehenengo helburuarekin erlazionatuta, eskola kirolean herri kirolak duen presentzia eta lurralde ezberdinetan dauden egoera ezberdinak azaltzen ditugu.

EAEen eskola kirola kontzeptua oso modu zabalean ulertzen da, legeak derri-gorrezko eskolatze aldiak ikasleak egindako kirol jarduera antolatu oro definitzen du eskola kirola moduan, hau da, 0-16 urte bitarteko haurrek egindako kirola dela esaten du, bere antolaketan parte hartzen duten egiturak eta eragileak kontuan izan gabe.

Eusko Jaurlaritzak kirolaren Euskal Plana 2003-2007ren bane eskola-kirolaren eredu berri bat aurkeztu zuen eta orain bideratzen ari da hau babestuko duen eskola kirolaren dekretu berria. Eusko Jaurlaritzaren eskumena da eskola kirola bideratzea eta sustatzea eta lurralde historikoetako aldundiena berriz urtero onartu eta aurrera eramatea eskola kirolari buruzko programak.

Jarraian ikusiko dugun bezala eskola kirolak EAEko hiru lurraldeetan eta Nafarroan garapen ezberdinak izan ditu, gida oinarria berdina izan arren lurralde bakoitzak ekintza, programa eta antolamendu ezberdinak dituzte eta hauen barruan herri kirolen egoera ere oso ezberdina da. Gizarte eragileen inplikazioa

ere ildo beretik doa, ikastetxeen inplikazioa oso irregularra, herri kiroletako federazioen partehartzea ere bai. Esan beharra dago neurri haundi batean eskola kirola kirol federatuaren ispilu dela, hau da emaitzen arabera antolatutako ekintzak dira; hala ere herri kiroletan bai joko sisteman, bai probak egiten diren moduan (askotan zirkuito erara) beste kiroletatik aldendu egiten da, oinarrian partaidetza bultzatu nahi izaten delako eta azken finean herri kirolak osatzen dituzten modalitate ezberdinak ezagutzea.

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak ere Euskadiko Eskolarteko kirol jokoan ekitaldi bat antolatzearen ardura dauka, urtero egiten dena. Azken urte hauetan kirol joko hauen barruan herri kiroletako jarduerak nola garatu herri kiroletako lau federazioetako, hiru Foru Aldundietako ordezkariekin adostu da. Laburbilduz partaidetza bi mailatan ematen da: infantil mailako Euskadiko txapelketa eta alebin mailako topaketa. Lurralde bakoitzeko bi talde gonbidatzen dira, Nafarroa eta Iparraldea barne.

Infantil mailako talde bakoitzak bost jokotan hartzen dute parte: sokatira, lokots bilketa, zaku ematea, giza proba eta txingak. Alebin mailakoak berriz lauetan, giza proban ez. Zirkuito erara egiten dituzte probak. Partaidetza 2006koan 181 izan zen, 2007-koan berriz 116 eta aurten 99koa.

Gainetik bada ere ondoren lurralde ezberdinetan 16 urte arteko haurrei bideratutako eta gauzatzen diren herri kiroletako programen eta ekintza nagusien azalpena egingo dugu.

Jakin badakigu, arestian adierazi dugun moduan, hainbat ekintza, programa, martxan jartzen direla guk orain adieraziko ez ditugunak ("maila edo esparru txikiagotan" egiten direnak: ikastetxe baten barruan...).

1. BIZKAIKO EGOERA

1.1. Herri kirolen sustapen programa

Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena da eskola kirolaren programa egitura-tzea, eta honen barruan hurrengo jarduerak egitea: lehia-jarduerak, hastapeneko jarduerak eta josteta-jarduerak.

2005-2006. ikasturtean Bizkaiko Aldundiak eskolaren munduan euskal joko eta kirolak sustatzeko kanpaina berezi bat martxan jarri zuen. Xede nagusia "estrategikotzat" jo ziren kirol jakin batzuen sustapena zen. Ekimen honen helburua neska eta mutikoen artean euskal kirol tradizionalen praktika sustatzea zen. Arrauna, Pilota eta Herri Kirolak bezalako kirolekin gozatzeko aukerak ematea. Aldi berean, kanpaina honen helburua Herri Kirolak indartzea zen eta da.

Herri Kiroletan sartzen dira, besteak beste, zaku-lasterketak, txingak, artaburu-bilketa, soka tira, demak eta lasto-fardoak jasotzea. 8 eta 14 urte arteko adinoko haurrentzat bideratua dago.

Helburua, azken finean, ikastetxeetan kirol horiek praktikatzea eta horiekin gozatzea lortzea baino ez da, baina, beste ezer baino arinago, joko jakin batzuk lehengoratzeta eta umeez ezagutzeta.

Herri Kirolaren sustapena, bereziki eta batez ere horien atalik ludikoenetik landuta, Eskola Kirolarekin batera eta horren osagarri moduan ari da burutzen. Hau da, honelakoak egiteak ez du esan nahi bestelako kirol jarduerarik ezin denik egin. Horretarako egin diren egitarauak erabat burutu dira ikastetxe eta ikasleen beharrezan neurritara.

Kanpaina hori abian jartzearen arduradun bakarrak ez dira ikastetxeak eta hor dago, laguntzeko, federazioa ere. Honen ardura da kirolean hasteko eta trebatzeko egitarau sendoak eta egokiak egitea, eta baita txapelketak antolatzea ere. Antolakuntzari dagokionez Foro Aldundiak lehentasun osoz aplikatu duen irizpidea talde mailako esku hartzea izan behar duela da.

Lehen aipatu ditugun jokuen eskolako arautegia egin da, hiru kategoritan burutuzten diren txapelketa eta modalitateekin:

Benjaminak: 8 eta 10 urtekoak. Parte hartzaileen kopurua (gutxienekoa/gehienekoa 8/12).

Alebinak: 11 eta 12 urtekoak. Parte hartzaileen kopurua (gutxienekoa/gehienekoa 10/15).

Infantilak: 13 eta 14 urtekoak. Parte hartzaileen kopurua (gutxienekoa/gehienekoa 10/15).

Azken urte hauetan ikasleen urteko batzbesteko partadaidetza 800 ikaslekoa izan da, 30 inguru ikastetxek parte hartu dute eta 70 inguru talde eratu dira.

Lehen adierazi dugun moduan Herri Kirolen sustapena Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren eta Euskal Joko eta Kirolen Bizkaiko Federazioaren artean sinatu den hitzarmenaren bidez egiten da. Eta azkeneko federazio hau ASFEBI (Bizkaiko kirol Federakundeen Elkartea) barruan dago. Hau dela eta, azkenengo hauek HK.eta programa eta honen garapena eramaten dute. Programa honen arduradunak azaldu digunez herri Kirol eskolarrean lan prozesu hau dute :

1. Irailean eskola guztiei bidaltzen diete txapelketari buruzko informazioa eta honen sustapenari buruzko informazioa ere.
2. Interesatutak dauden eskolak beraiekin jartzen dira kontaktuan eta batzar bat zehazten dute sustapena prozesua nola den azaltzeko.
3. Sustapena prozesua: Irailtik-urtarrilararte, nahi dituzten ikastetxeei herri kirol materiala uzten diete aste bete bat, heziketa fisiko saioetan erabiltzeko. Materialarekin batera unitate didaktiko bat ematen diete eta

beraien laguntza egun batean klaseak ematerakoan. Aste hori amaitzen denean haur guztiei pasatzen zaie notatxo bat herri kirol txapelketari buruzko informazioarekin eta apuntatzeko aukerarekin.

4. Irakasleak hartzen ditu notatxo guztiak eta beraiekin jartzen da kontaktuan taldeak txapelketara apuntatzeko.
5. Urtarriletik-maiatzararte txapelketa egiten da. Hiru zonalde egiten dira eta zonalde bakoitzean hiru topaketa. Beraz bederatzi topaketa egiten dira, baina talde bakoitza hiru topaketetara joaten da. Amaieran azken topaketa egiten da (finala), hiru zonaldeko talde guztiak elkartzen dituen, hau da, Bizkaiko talde guztiak. Bizkaiko Eskolarteko Kirol Jokoen barruan.

1.2. Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin hitzarmena (BIE): Bilbon Herri Kirolak Euskaraz

Euskara Sailak eta Bizkaiko Ikastolen Elkarteak (BIE), Bilboko ikastetxeekin elkarlanean, *Bilbon Herri Kirolak Euskaraz* egitasmoa antolatzen du.

Gizakiak betidanik jolasak eta jokoak... bere inguru sozialarekin harremana izateko tresnatzat hartu du. Horretan oinarrituz eta taldearen kohesioa bultzatzen duten jolas eta jokoen egokitasunaren arabera Euskal Jolasak DBHn erabiliz, euskararen erabilerarako esparru berriak sustatzeko proiektua burutzen du Bizkaiko Ikastolen Elkarteak. Partehartzaileak DBHko 3. mailako ikasleak dira. Urtean zehar zenbait topaketa egiten dituzte. Parte hartu duten ikastetxeetan jolas eta jokoei buruzko unitate didaktikoa landu ondoren, topaketa batzuk antolatu dira ikastetxeen eremuetatik kanpo.

Topaketetan 20 bat ikastetxetako 1.200 ikaslek parte hartzen dute. Kirolak eta jolasak: kotxak, txingak, zakuak, toka, hankapaloak, giza-froga, sokatira, bir-lak, galotxa, arrauna... dira.

1.3. “Herriz herri kanpaina”: Mungiako parke tematikoa eta erakusketa ibiltaria

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen beste programa bat da.

Lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleei bideratua, herri kirolak ezagutzeko programa didaktikoa. Bizkaiko nainbat herrietatik erakusketa ibiltaria.

1.4. Kirolari ateak zabalik (kirolbide)

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko udalekin batera beste ekimen bat aurrera eramaten du: “kirolari ateak zabalik jardunaldiak”. Hauek, kirol jaiaren formatoa-rekin antolatzen dira, ekainaren inguruan.

2005. urtean lehenengo topaketak ospatu ziren, eta udalekin duten hitzarmenen bidez, herritar guztientzat zabaltzen dira.

2007. urteko programan adibidez, Herri Kirolarekin erlazionatutako hainbat jarduera irekiak planteatu ziren. Besteak beste:

- Harri-zulatzaileak (Derion): Erakusketa. Adin guztientzat.
- Herri kirolak (lurretan): Txikientzat. Asmoa taldeak osatu eta adinen araberako lehiaketak antolatzea da.
- Herri kirolak (Ortuellan): lokotsak, txinga, sokatira.
- Herri kirolak (Sondikan): ordu bateko entrenamenduak.

2. ARABAKO EGOERA

2.1. Herri kirola eskola kirola programan

Arabako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programaren barruan herri kirolaren jarduera agertzen da eta programa honen barruan herri kiroleko arautegia biltzen da.

Modalitateak hauek dira:

1. Zakulariak: lasterketa lepoan zakuak eramanez, hirunaka. Hirukote bakoitzak 180 metro korritzen du (60 m parte-hartzaile bakoitzak)...
2. Oskol Bilketa: mutil/neska bakoitzak, bere adin-mailaren arabera, 1,25 metroko tartekin ipinitako artaburu andana bat biltzen du.
3. Neska-mutil proba; parte-hartzaile bakoitzak, ahal duen denbora laburrean, kaxoi bat eramaten du arrastaka 20 m-ko distantzia. Pisua desberdina izanten da, adin-mailaren arabera.
4. Ingudea: parte-hartzaileek ahalik eta jasoaldi gehien egiten dute ingude batekin 30 segunduko denboran. Ingudearen pisua desberdina izango da, adin mailaren arabera.
5. Txinga lasterketa: lasterketa eskuetan pisuak eramanez, hirunaka. Hirukote bakoitzak 180 metro korritzen ditu (60 m parte-hartzaile bakoitzak)

Lehiaketako arauak:

Lehiaketa 2 urratsetan egiten da.

1. urratsean, ikastetxe bakoitzaren barruko lehiaketak egiten da, nahi duten neska-mutil guztien artean, dagozkien adin-mailen barruan.

2. urratsa ikastetxeen artean egoten da; haietako bakoitzak, gehienez ere, ordezkari kopuru hau aurkeztu dezakelarik.

	Benjaminak		Kimune		Haurrak		Kadeteak	
	neskak	mutilak	neskak	mutilak	neskak	mutilak	neskak	mutilak
Oskol Bilketa	3	3	3	3	3	3	3	3
Neska-mutil Proba	3	3	3	3	3	3	3	3
Ingudea	3	3	3	3	3	3	3	3
Zakulariak	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote
Txingak	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote	3 hirukote
Soka-tira	Talde 1	Talde 1	Talde 1	Talde 1	Talde 1	Talde 1	Talde 1	Talde 1

Ikastetxeak Arabako Herri kirolen federazioarekin harremanetan jartzen dira, begirale espezializatuak eta/edo beharrezko materiala lortzeko.

Azkeneko bi ikasturte hauetan, 2006-2007, 2007-2008 ez du inork parte hartu eskola kirolaren programaren barruan herri kirol kanpainan. Ez parte hartzeak atzerapauso nabarmen bat ekarri dezake sustapen mailan.

Arabako kirol aldundiak diru partida bat dauka kirol federatuen arloan Herri Kirolak sustatzeko eta finantziatzeko. Herri Kiroletan eman daitezken adin guztientzako proiektuetara irekita dago. Honen barruan, hainbat herri kirol taldeen barruan "Sustapen eskolak" topatu ahal ditugu, kirolako modalitate gutxi-
tuak sustatzeko.

Hauen artean ondorengo eskolak martxan daude Arabako hainbat taldeen bidez

Taldea	Tokia	Sustapen eskola
A.D. Berrio	Laudio	Idi probak / zaldi probak
A.D. Aiara herri kirol taldea	Respaldiza	Aizkora/ trontza/ juegos de Iparralde
A.D. Betagarri H.K. Elkartea	Lopidana	Corte con azada/ lanzamiento de fardos de paja/ corte de troncos con hacha/ corte de troncos con sierra/ levantamiento de fardo/ yunque </ recogida de mazorcas/ transporte de pesas/ carrera con sacos/ carro/ arrastre de piedra
Arrizkuzubi H.K. Taldea	Laudio	Sokatira / mazorcas

3. NAFARROAKO EGOERA

3.1. Nafarroako Herri Kirol Jolasak

EAEko beste lurraldeetan ez bezala, Eskola Kirolaren barruan Herri Kirolen sustapena eta garapena neurri haundi batean Nafarroako Herri kiroletako federazioaren esku dago. Programa honek urte asko darama martxan eta oso erroturik dago. Nafarroako herri kirol federazioak Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmen baten bitartez herri kirolen programa antolatu eta bidaretzan du ikasurtero.

Hainbat proba antolatzen dituzte. Jarraian azalduko ditugu, era laburtu batean, proba ezberdinen xehetasunak.

1. Proba konbinatua. Nafarroako Herri Kirol Jolasetan hiru kategoritan aritzen dira kirolariak: Alebin maila, Haur maila eta Kadete maila. Alebin mailako parte hartzaileak 11 eta 12 urte bitartekoak dira. Haur mailako parte hartzaileak 13 eta 14 urte bitartekoak. Kadete mailako parte hartzaileak 15 eta 16 urte bitartekoak. Taldeak emakumezkoak, gizonezkoak edota nahastuak izan daitezke. Talde guziek bere Kategoriako Txapelketa bakarrean hartzen dute parte.

Jokatzeo sistema berriz esan beharra dago alebin, haur eta kadete mailako proba konbinadetan 4 jardunaldi eta Finala jokatzen direla. Finalean lau taldek hartzen dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

Proba Konbinatuan bost proba egiten dira: Koskor biltzea, Txingak, Zakulari lasterketa, Korrikalaria eta Arpana.

Egin beharreko lanak eta parte hartzaile kopurua honakoak izaten dira:

Proba	Ko.	Alebinak	Haurrak	Kadeteak
Kozkor biltzea	1	8 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita (lehen kozkorra saskitik 2 metrotara)	10 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita (lehen kozkorra saskitik 2 metrotara)	12 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita (lehen kozkorra saskitik 2 metrotara)
Txingak	1	80 m. 3 kg.ko txingekin (2 itzuli)	80 m. 5 kg.ko txingekin (2 itzuli)	60 m. 10 kg.ko txingekin (2 itzuli)
Zakulariak	3	80 m. 6 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)	80 m. 10 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)	80 m. 15 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 m. (2 itzuli)	160 m. (2 itzuli)	240 m. (3 itzuli)
Arpana	2	—	70 zm.ko 2 korte	70 zm.ko 3 korte

2. Sokatira. Alebin mailan ez da Sokatira probarik egiten. Haur mailan lau jardunaldi eta finala jokatzeko dira. Kadete mailan multzo bakarrean aritzen dira. Liga sistema erabiltzen dute, hots, puntu gehien lortzen dituen taldeak irabazten du. Haur mailan, gehienezko pisua 480 kg. izaten da eta Kadete mailan 540 kg. Parte hartzaileak taldeko 8 izanen dira (nahiz haurretan nahiz kadeteetan), Proba Konbinatutako kirolari berdinak izan daitezkeelarik. Tiraldia irabazteko ibili beharreko distantzia 3 m.koa izanen da. Parte hartzeari dagokioenean adibide moduan jarraian azaltzen ditugu 2007.eko Nafarroako Herri Kirol Jolasak programan parte hartu zuten ikastetxe eta partaide kopurua.

2007.eko Nafarroako Herri Kirol Jolasak kategoriak, modalitateak, taldeak

Kimuak (95-96)	Haurrak (93-94)		Kadeteak (91-92)	
	Konbinada	Soka-tira	Konbinada	Soka-tira
Berriozar 1				
Berriozar 2				
San Jorge 1				
San Jorge 2				
Ultzama			Ultzama	Ultzama
Basaburua	Basaburua	Basaburua	Basaburua	Basaburua
Igantzi	Igantzi	Igantzi		
Iñigo Aritza	Iñigo Aritza	Iñigo Aritza		Iñigo Aritza
Andra Mari	Andra Mari	Andra Mari	Andra Mari	Andra mari
Putterri	Putterri			
Sakana	Sakana			
	Txantrea "A"	Txantrea	Txantrea	Txantrea
	Txantrea "B"			
	Arantza		Arantza	
			Garralda	

3. Arpana. Kadete mailan, Nafarroako Arpana Txapelketa antolatzen da. Arpanlari bikoteak emakumezkoak, gizonezkoak edota nahastuak izan daitezke.

4. GIPUZKOAKO EGOERA

4.1. Herri Kirola Eskola Kirola Programan

Gipuzkoako Aldundiak Eskola Kirola programaren barruan Herri Kiroletako jarduerak eskaintzen ditu. Kategoria bakoitzeko (benjaminurre, benjamin, alebin, infantil) kirol jarduera batzuk eskeitzen dira eta hauen barruan Herri Kirolak agertzen zaizkigu guztietan. Hala ere esan beharra dago Kirolaren Euskal Planean (2002-2007) agertzen diren ildoak, ibilbideak kontutan hartzen direla eta parte hartzeko ibilbidean eta parte hartzeko lehiaketa jardueretan daukagula Herri Kirolen presentzia ez ordea errendimenduen hasteko lehiaketetan ez da ere talentudunak eta etorkizuneko kirolariak identifikatzeko ibilbidean.

Kategori txikienetan sasoi bateko (goizez edo arratsaldez) eginiko jarduerak izaten dira.

Aldundiko Eskola Kirola programaren barruan ere Gipuzkoako Herri Kirolen federazioak herri kiroletako ikastaroak antolatzen ditu. Ikastaro hauek ikastetxearen bidez izena ematen duten lehen mailako irakaskuntzako 3. mailatik gorako ikasleentzat zuzendurik daude. Ikastaroa saio bakarrean egiten da eta 50 minutuko iraupena izaten du gutxienez eta ordu t'erdikoa gehienez. Ikasleen adinera egokitutako egitarau bat antolatzen da. Laburbilduz: 1: ikastordu teorikoak (kokapen historikoa, gaur egungo ikuspuntua) 2: ikastordu mistoa (herri kiroletako materialaren ezagutza eta jatorria) 3: ikastordu praktikoa (beroketa, "giza-proba", "zaku eramatea", lasterketa, lokotxak, sokatira eta Txinga).

5. LEHEN ONDORIOAK

Jarraian, eskola kirolaren barruan herri kiroletako programa ezberdinak aztertuko ondoren eta kirol arduradunekin eduki ditugun elkarriketak kontutan harturik, eskola kirolean herri kirol jardueren diagnostikoa eta proposamenak azalduko ditugu:

- Herri kirolek eskola kirolaren barruan garapen ezberdina izan dute lurralde ezberdinetan.
- Gida oinarria berdina izan arren lurralde bakoitzean ekintza, programa eta antolamendu ezberdinak dituzte.
- Gizarte eragileen inplikazioa ezberdina da.
- Herri Kiroletara hurbiltzeko prozesua ezberdina izan da.
- Lurralde bakoitzeko arduradunek beste lurraldetan egiten denaren ezagupen txikia dute (koordinazioa falta).
- Prestakuntza ikastaro espezifikorik ez dago.
- Guztiek ikusten dute beharrezkoa sustapen eta partaidetza ildoak jorratzea.

Egjbar, Miren; Garai, Beatriz: Herri kirol jarduerak eskola kirolean: diagnostikoa eta proposamenak

- Gehienek usten dute ildo hau garatu ondoren beste ildo batzuk jorratu daitezkeela.
- Eskola kirolaren programan herri kirolak duen egoera eta garrantzia oso baldintzaturik dago, kasu askotan, ikastetxean dagoen heziketa fisikoko irakasleak duen motibazio eta inplikazioarekin.
- Herri Kirolak sustatzeko eta ezagutu arazteko beharrezkoa jotzen dute Herri Kiroletako eskolak sortzea.
- Lurralde batzutan egitura sendo baten beharra ikusten da. Kirol teknikarien falta.

ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK

EUSKO JAURLARITZAKO KULTUR SAILA. KIROL ZUZENDARITZA. *Kirolaren euskal plana: 2003-2007*, 1. arg. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003.

EUSKO JAURLARITZAKO KULTUR SAILA. KIROL ZUZENDARITZA. *Herri Kirolen Plan Estrategikoa (2007-2010)*, Gasteiz, 2006.ko ekaina.